

ANTI BARBIAK

KALEKUMEAK

Mercè Anguera

Bego Montorioren itzulpena

Desclée De Brouwer

ANTI BARBIAK

Hamar urte dituzte. Kalekumeak dira, eta bizi diren auzoan denetik dago: etxe zaharrak eta etxe berriak, parkea, azoka, liburutegia, anbulatorioa... Auzoko ikastetxera doaz, eta, aurten lehen aldiz, eurak bakarrik, 5. mailan daude eta.

MARTA

Ile gorrixka du, lasto lehorren antzekoa (harro eta tente ateratzen zaio burutik, benetan lastozkoa bailitzan, nahiz eta saiatzen den nola edo hala lotuta eusten). Betaurrekoak ditu, eta zer?; norbera den bezalakoa da. Garaia da, baldar samarra eta oso-oso berritsua... Familiarekin bizi da: gurasoak, amama, Helena (hamabost urteko ahizpa nagusia) eta Andres (neba txikia, umetxo bat).



MARTA, ELI ETA NAO: ANTIBARBIAK DENAK BATENTZAT ETA BAT DENENTZAT

ELI

Txiki samarra da (kakanarrua esaten diote).
Iluna du ilea -ez luzea ez motza-, eta sudurra,
txikia eta oreztaz betea. Izugarri azkarra da,
eta ikastea maite du. Martak eta Naok ez dute
ondo ulertzen nola den posible hori; primeran
datorkie, alabaina, hura ondoan edukitzea,
etxeko lanak egiteko orduan. Egun batzuetan
amarekin (hobe esanda, umezainarekin) eta
beste batzuetan aitarekin bizia da.



NAO

Ile luzea eta liso-lisoa du, aurpegi borobila, gelako
oinik txikiak eta txinatar-begiak. Ondo ematen
diote, nolanahi ere, horixe baita bera, txinatarra.
Txinan adoptatu zuten gurasoek, eta, behar bada
horregatik, nahikotxo (gehiegi) mimatzen dute;
Martak eta Elik esan ohi diote hori ez dela ona,
baina hark ez die jaramonik egiten. Oso Antibarbi
berezia da, izan ere, barbi bat ere baita, neurri
batean.

1

Denek uste dute Andresek ez dakiela berbetan.

—Ume horrek lau hitz baino ez ditu esaten... —kexu izaten da ama.

—Nola nahi duzu berba egitea, Martak ez badio uzten! —aitaren erantzuna, burlaizez.

Fama txarra dut nik, merezi ez dudan arren. Esan nahi dut fama merezi dudala, berritsua naizelako, baina ez dut merezi fama «txarra» izatea, asmo onez egiten dudalako. Familiako guztiak, bestela, asper-asper eginda egongo liratekeelako egiten dut. Baita halakoa naizelako ere, eta zer? Horretaz guztiaz ari ginen, kotxean, Raspletserantz gindoazela Aste Santuko oporrak pasatzera.

—Bakoitza den bezalakoa da, ezta? —defendatu nuen nire burua.

—Bai, baina hik esajertu egiten dun, Marta —esan zuen Elik, ohi bezala gure aitari arrazoia emanda.

—Jakintsuen dohaina da esajeratzea —baieztatu zuen Naok. «Egoki Aurreratzen» duenetik, baieztatu besterik ez du egiten.

—Zuzentzea da jakintsuen dohaina, ez esajeratzea! Esajeratu Martak baino ez du egiten! —Horrelako zorrotza da Eli, nahi duenean, eta ia beti nahi izaten du. Agian, pentsatuko zuen eztabaida on batekin bidaia ez zela hain aspergarria izango. Baina ez genuen eztabaidatu, nik ezentzunarena egin nuelako, eta Naok, irribarre eginez, honela erantzun zuelako:

—A! Hara ba, zuzendu egiten dut!

Umore txarrez geunden. Rasclats urrun dago, eta bidaia nekagarria egiten da. Gainera, oso estu gindoazen, ze, gurearen antzeko autoen iragarkietan gizon bat, emakume bat, bi ume, bizikleta bat, txakur bat eta hamabost maleta sartzen badira ere, bizitza errealean gauzak bestelakoak dira. Esan nahi dut bizitza errealean asko garela. Aita, ama, amama, Andres, Andresen aulkitxoa, Eli, Nao, ni eta astebeteko oporrak pasatzeko behar diren poltsa guztiak: nork berea, eta Naok hiru. Eskerrak ez bizikletarik ez txakurrik ez daukagun. Txakurra baino ez genuen falta.

—Zertan ibiliko ote da Helena? —errepikatzen zuen amak bost minututik behin.

Lehen aldiz, Helena bakarrik geratu zen etxean. Nagusia da, hamazazpi urte ditu, eta ikasi behar duela dio. Baina, egiaz, Octaviorekin maitemindu delako da, eta, maitemintze hori dela eta, antza, lana pilatu egin zaio. Amari ez dio batere graziarik egiten hainbeste egun

bakarrik geratzeak, baina aitak konbentzitu egin zuen: txarragoa izango zela gurekin ekartzea eta ez zitzaiola ezer gertatuko, Helena zakarra bezain arduratsua delako; hau da, oso zakarra eta oso arduratsua.

—Zertan ibiliko ote da Pazifiko? —esaten zuen Elik, kezka doinuaz, eta hark ere bost minututik behin. Arrain baten minez egotea ere!

—Zertan ibiliko da, ba; hire Pazifiko horrek ez dakit eta ezer egiten! —nahi dudanean, ni ere izan naiteke zorrotza. Eta oso!

Elik begirada hilgarria zuzendu zidan, eta Naok berehala esku hartu zuen:

—Hara, zerbait egiten badaki! Denbora luzez egin dezake igeri burua atera gabe!

—Arrain guztiek bezala, Nao!

—A! —erantzun zuen lasai asko Naok, eta ezer ez bailitzan lotu zitzaion leihatilatik begiratzeari.

Naok gustuko du leihoetatik begiratzea. Beti esaten du hori dela goizean, jaikitzean, egiten duen lehen gauza. Oso ohitura praktikoa da: horrela, esaterako, zer arropa jantzi behar duen jakin dezake, eta hori oso garrantzitsua da berarentzat. Ni ez naiz horretaz askorik kezkatzen, baina gehiago arduratu beharko nintzateke ze, batzuetan, gertatzen zait oso jertse lodia janztea eguzki galda dagoen egunean, eta gero egun osoa izerdi patsetan ematea, orduan gertatzen ari zitzaidan bezala.

Naori ez zaio hori sekula gertatzen: beti dago okasiorako egoki jantzita.

—Bero naiz! —kexatu nintzen bosgarrenez.

Amak aukera baliatu zuen niri errieta egiteko. Hura ere umore txarturik zegoen.

—Jakina bero zarena, Marta! Arropa gehiegi duzu eta.

Aitak txantxa egiteko profitatu zuen:

—Poetek diotenez, merezi duena ez da helmuga, bidaia baino. Familiarik gabeko poetak izango ziren, seguru...

Andresek, aulkitxoan jarrita, barre egin zuen surdurpean, zorabiatu antzean ematen zuen arren. Txikia da, gizajoa, eta ez dago autoz bidaiatzen ohituta. Amama erdi lo zegoen. Nik izerditan nuen lepoa. Esaten ari nintzaizuena: leihotik ez begiratzearen ondorio latzak. Naok begira segitzen zuen, ez dakit zeri, ordea, autopistan ez baitago ikusteko ezer ere ez. Hori dute autopistek: berdinak dira denak, grisak, zabalak eta zuzenak, eta aurrera egitea beste zereginik ez dago; butxadura dagoenean izan ezik.

—Bai aspergarria, hainbesteko ilarak! —marmar egin nuen.

—Tira, Marta, ez egin hainbeste kexa, hantxe dago ordainlekua, eta, gero, autopistatik aterako gara!

—Nao, zeri begira hago?

—Hango auto hari. Beltz handi hura...

—Dirdira egiten duena? Guztiz garbi eta txukun hura? —galdetu zuen amak.

Aitak zeharka begiratu zion, lotsatu antzean, gure autoak ez duelako ez orain ez sekula dirdirarik egin. Kontua da aitak inoiz ez duela autoa garbitzeko gogorik, eta amak, denborarik ez, eta garajea euririk egiten ez duenez, bada....

—Hara! Hango neska hark Maria Isabelen antza du...! —esan zuen Elik.

—Maria Isabelen minez ere bahago? —galdetu nion harriturik—. Joe, bide horretatik segituz gero, Borja eta Pabloren falta igartzen hasiko haiz.

—Ez, Elik esan nahi duena dun neskatile hura ondo eroso doala —azaldu zidan Naok.

Elik, Naok eta hirurok leihatilatik ikusten genuen neskatile hura zabal-zabal zihoan autoaren atzealdeko eserlekuan, ez belaun gainean poltsarik, ez saihetsetan iltzatzen zitzaion ume aulkirik, ezta belarri ondoan zurrunga egiten zion amamarik ere ez zuela. Labur esanda, printzesa baten modura. Irribarre zoragarria ageri zuen, karroza batean bailegoen. Guk, iragarkietakoa bezalakoa baden baina ez den kotxean pilatuta, ez genuen batere irribarrerik egiten.

Segidan, Andresek botaka egin zuen, lasai-lasai, amamaren gonan. Gauzak beti oker daitezke, baita

oso txarto daudenean ere. Zerbitzugune batean geratu behar izan genuen, eta, han, ateak zabaldu aire pixka bat sarrarazteko, amamaren gona eta eserlekua Andresen eskuzapi hezeekin garbitu, baita oso atseginak ez diren, edo, zuzenean, ezatseginak diren beste zenbait gauza ere egin behar izan genituen.

Gurean ez da "hondartza ala mendia" eztabaida aspergarri hori egoten. Horretan, ados gaude denok. Amamaren etxera, Rasclsetsera, joaten gara beti, eta hura ez da ez hondartza ez mendia. Nekazarien herria da, baditu soroak eta ortuak, olibondoak eta almendrondoak, eta kito. Ez da gauza handia izango, baina guk maite dugu.

Lehen, amamari lagun egitera joateko aitzakia genuen, baina, Andres jaio zenetik, gurekin bizi da, beraz, lagunduta dago; lagunduegia ere, zenbaitetan. Orain, ohituragatik joaten gara, eta horrek esan nahi du zerbait egiten duzula beti egin duzulako. Denoi datorkigu ondo ohitura hori. Aitari eta amamari, Rasclsetsen jaiok direlako. Amari, Rasclsetsen ez dagoelako korrika ibili beharrik; kontrakoa: hobe da dena astiro egitea, ze, asko presatzen bazara, berehala amaitzen duzu, eta, jakina, orduan, aspertu egiten zara. Niri, Rasclsetsen nahi duzunean uzten dizutelako kalera ateratzen, baita afalondan ere. Helenak ere atsegin zuen Rasclset, maitemindu aurretik, baina, orain, bestelako lehentasunak ditu. Opo-

rrak baino bi aste lehenago konturatu ginen horretaz, honela esan baitzigun bazkalondoren:

—Aurten, ni ez noa Rascltsera. Hori bai asperdura!

Inork ez zuen txintik esan. Aita txistuka eta dena hasi zen. Amak interes handiz begiratzen zien azkazalei. Helenak oso berezkoa du probokatzeko gauzak esateko joera. Hoberena jaramonik ez egitea izaten da. Baina amama oso sentibera da Rascltsekin lotura duen ororekiko, ze, esaten ez badu ere, herri min handia du. Eta, Helena entzun zuenean, izutu egin zen:

—Ene, umea, zelako gauzak esaten dituzun!

Helenak eutsi egin zion:

—Institukurako lan pila egin beharko dut! —eta gaineratu zuen—: Hobe dugu nik hemen geratzea, ikasten, eta zuek lasai joatea.

Amak ez zion jarraitzen utzi:

—Ezin duzu etxean bakarrik geratu!

Aitak hasperen egin zuen:

—Ikasteko, munduko tokirik hoberenetakoa da Rascltsets. Isiltasuna... Bakea... Egunean hamabost orduz ikas dezakezu. Mugikorrerako estaldurarik ere ez dago eta!

Helenak jauzi egin zuen aulkian:

—Estaldurarik ez dagoela?

Eta, egun hartatik aurrera, muturtuta ibili zen, gurasoak konbentzitzen saiatzeko Rascltsera joanaraz

ez zezaten. Gurasoek ez zuten beste gairik. Baietz, ezetz... Harik eta erabaki zuten arte etxean geratzeko baimena emango ziotela, autonomia apur batek heltzen lagunduko ziola.

Orduan, Helenak mutur oker egoteari utzi zion, eta ni hasi nintzen. Beti joan izan naiz Helenarekin oporretan, eta, sinesteak lana ematen badu ere, horretara ohitu naiz. Ez dakit bakarrik joaten. Zorionez, aitak irtenbide bat proposatu zidan:

— Helena etorriko ez denez eta tokia izango dugunez, agian, Nao eta Eli gonbidatu nahi izango dituzu. Haien gurasoek ondo irizten badiote, noski.

Gure aitak gauza batzuk zertarako galdetzen dituen, oraindik ere ez dakit: jakina gonbidatu nahi ditudala Nao eta Eli! Jakina gurasoek ondo iritziko diotela!

Zoritxarrez, gurasoen kontua ez zegoen hain argi. Elirenek baimena eman zioten, baina, Naorenek, ez. Uste zuten ez zuela landa bizitza ondo eramango, hainbeste euli eta armiarmekin. Baina Naok erakustaldia egin zien: aste oso bat pasatu zuen eskolara joateko praka bakeroak eta mendirako botak janzen.

—Eta hori nahikoa ez bada —esan zigun— armiarma bizien bilduma egiten hasiko naiz.

Zorionez, ez zen beharrezkoa izan. Gurasoek erabaki zuten nahikoa heldua zela autonomia pixka bat izateko. Autonomiaren kontu hori ez dut ondo ulertzen:

autonomia duzunean heltzen zara, edo heltzen zarenean eskuratzen duzu?

Eta, horrela, bidaiaren eguna heldu zen.

Rascletsera goazenean, goiz abiatu ohi gara, ilararik ez harrapatzeko. Autoa beteta zegoen, Eli bertan zen, gurasoek egina zioten azken sermoia Helenari, etxean bakarrik geratzen den hamazazpi urteko neska batek egin dezakeenari, eta, batez ere, egin ezin duenari buruz, eta amak Andresen txupetea galdu eta berriro topatu zuen. Dena prest zegoen. Baina Nao ez zen agertzen.

Bi tarte eman genituen zain, bat laburra eta bestea luzea. Orduan, aitaren mugikorra joka hasi zen. Naoren ama zen, bazetozela, ez zutela nahi izan Nao hain goiz iratzarri, gajoa.

—Hori bai lotia! —egin nuen oihu.

—Marmota lotia hibernatzen —zehaztu zuen Elik.

Andresek ahopeka esan zidan:

—Niri arrazoizkoa iruditzen zait, neuk ere ahal dudan denbora guztia aprobetxatzen dut lo egiteko!

Horregatik egon ginen umore txarrez bidaia osoan: ondo begiratuta, goizegi altxatu ginen.

